



# KANPAINEN GIDA

## CARITAS BIZKAIA 2021 - 2022



## TESTUINGURUA

---

Azken bi urteetan, Bizkaiko Caritasen kanpaina instituzionalaren goiburua «Erdu - Te invito» izan da. Lehen urtean, gonbit egiten zigun **pertsonekin eta munduarekin beste modu batean jarduteko**, arreta osoa jarrita eta entzunez, bihotza zabalik, errealitateak eskatzen digunari erantzun ahal izateko. **BESTE SENTSIBILITATE BATEKIN IBILTZEKO** gonbita zen, **gure zentzumenak erabiltzeko beste modu batekin ibiltzeko**, komunitate solidario, abegitsu eta inklusiboak sortze aldera.

Bigarren urtean, **NORK BERE BURUA ZAINTEKO** gonbit egin genuen, **PERTSONAK, HARREMANAK, ETA GIZARTE- ETA INGURUMEN-INGURUNEA ZAINTEKO, ABEGITSUA DEN, ANIZTASUNEAN BAT EGINDA DAGOEN** eta inor baztertzen ez duen **KOMUNITATE BATETIK**.

Aurten ere goiburu bera erabiliko dugu. Hirugarren urte honetan, **KOMUNITATE ALAI BATETIK ITXAROPENA BIZI ETA KUTSATZERA** gonbidatuko gaitu. Aurtengo kanpainak gu kolektibo eta komunitario bat izango du hizpide. Aurrera itxaropenez begiratu behar duen gu bat da, etorkizun zabalagoak bilatu behar dituen, pertsona guztiei —batez ere pandemiaren garaian eta aurretik bizitzaren funtsezko zutabeetan izugarritzko galerak izan dituztenei— euren existentzia, aukerak eta bizi-proiektuak birsortzen laguntzeko.

Oinarri horiek aintzat hartuta, helburu batzuk ezarri eta orientabide batzuk proposatzen ditugu, munduan bizitzeko eta egoteko dugun moduz jabetu gaitezen, Ebanjelioaren espirituarekin bat eginda.

## AMETS EGITEN DUEN KOMUNITATE BAT

---

Amets egiten duen komunitate bat eraikitzea da gure proposamena, ikasturte berri hau bizitzeko, eta bat egiteko Frantzisko aita santuak giza familia handi hau osatzen dugun pertsona guztion artean senidetasunerako desira berpizteko proposatzen dizkigun grinarekin eta itxaropenarekin. Amets egiteak etorkizunerako, aukerarako eta eraldaketarako bideak irekitzen dizkigu; amestek aukera ematen digu beste bizitza bat eta hobe izateko itxaropena sortu, irrikatu eta proiektatzeko, batez ere etorkizun-itxaropenik gabe bizi direnentzat.



Aurten komunitate itxaropentsu eta alai baten inguruan hitz egingo dugu, pertsona guztientzat, bereziki zaugarrientzat, ekitatibo eta bidezkoak izango diren abaguneak sortzeko aukera emango diguten ostertz berrien bila dabilena. Haiek dira, Caritasetik laguntzen digutenak, hitz egiten digutenak eta beren errealitatea bertatik bertara hurbiltzen digutenak. Gizakiaren oinarrizko eta funtsezko eskubideak (janaria, etxebizitza, osasuna, enplegua edo hezkuntza) gutxieneko duintasunez eskuratzeko dituzten premiek eta zailtasunek markatutako errealitatea da. Ahultasun-, mendekotasun- eta pobrezia-testuinguru horretatik, aukera gutxi dago ametsak eta etorkizuna proiektatzeko.

## KUTSATZE BERRI BAT: ITXAROPENA

---

San Joan Paulo II.ak itxaropenaren bertute teologala berraurkitzera gonbidatu gintuen; izan ere, itxaropenak «kristau-komunitatea bultzatzen du bere bizitza osoari zentzia eta balioa ematen dizkion xedea bistatik ez galtzera, alde batetik, eta, bestetik, motibazio sendo eta sakonak ematen dizkio, errealitatea eraldatzeko konpromisoa har dezan egunero, Jainkoaren planarekin bat etorriz» (Tertio millennio adveniente).

Benedikto XVI.ak entziklika oso bat eskaini zion itxaropenari: Spe Salvi. Bizitza alda dezakeen eta pertsona askorengana, guztiengana, iristeko partekatu behar den bertute bat dela azaldu zuen.

Azkenaldian, Frantzisko aita santuak asko aipatu du itxaropena pandemiaren testuinguru honetan. Beste kutsatze batez hitz egin zuen, itxaropenaren kutsatzeaz, alegia. Aita santuaren arabera, «bihotzetik bihotzera transmititzen den kutsatzea da, gizaki guztien bihotza Berri On honen zain baitago».

«Bertuterik txikiena, baina indartsuena». Horixe dio Frantzisko aita santuak itxaropenaz hitz egiten duenean. Haren ustez, «hiru bertute teologikoetan apalena (fedea, karitatea eta itxaropena - I Korintoarrei 13, 13 -), ezkutuan dagoelako». Bertute arriskutsua da. Ez da irudipen bat. «Inoiz huts egiten ez duen bertutea da». Bertute zehatz bat da, «egunerokoa, elkargune bat delako, eta Eukaristian, otoitzean, Ebanjelioan, pobreengan edo bizitza komunitarioan Jesusekin elkartzen garen bakoitzean, behin betiko elkargune horretarantz beste aurrerapauso bat ematen dugun bakoitzean [ageri da]». «Itxaropenak pazientzia behar du», eta guk geuk ere pazientzia behar dugu, ziape-alea hazten ikusteko.



Itxaropena ez da baikortasun pasibo bat; aitzitik, «borrokalaria da, helmuga seguru batera doazenak bezain nekaezina».

Frantzisko aita santuak dioenez, «itxaropenak zalantzazko etorkizun baten iluntasunean sartzeraz bultzatzen gaitu argitan ibiltzeko. Itxaropenaren bertutea ederra da; bizitzan ibiltzeko indar handia ematen digu».

Kristau-komunitate orok argia izan behar du, eta are gehiago tokian-tokian, gure ingurunerik hurbilenean, eragina duen egoera latz honetan: migrazio behartuak, ingurumenaren narriadura eta horrek pertsonengan dituen ondorioak, herrialderik pobreenetako eta baliabide gutxien dituzten herrialdeetako biztanleentzat COVID-19aren aurrean babesa eta segurtasuna emateko interes eskasa...

Arlo ekonomikoan eta digitalean globalizatuta dagoen gizarte honetan, gizatasunaren eta elkartasunaren kontzientzia globala lortzeko bide berriak egin behar ditugu. Hori dela eta, bizitza ematen jarraitu behar dugu daukagunaz bestelakoa den eta hobea den gizarte bat berreraikitzeko, eta, horretarako, itxaropena eta poza hartu behar ditugu oinarri; itxaropena, bidea argitzen duelako, eta poza, pertsona bakoitzak bere talentuak eskaintzen dituen komunitate batean gaudela jakitea pozgarria delako.

Ebanjelioaren balioen bidez jarduteko eta izateko modua argitzen du itxaropenak, eta ekintza nabarmenetan eta giza eskubideak defendatzen dituzten proiektuetan islatzen da.

## BIDEAN DAGOEN KOMUNITATEA

---

Bidean gaudela amesteak etorkizunak eta aukerak adierazten dizkigu, eta, batez ere, prozesuak. Batzuetan, xedeak behar baino lehen lortu nahi izateko tentazioan erortzen gara, hori gure bizitzaren helburua balitz bezala, eta ahaztu egiten dugu misioa bidean eta hartan ibiltzeko moduan dagoela, helmugetan baino gehiago. Bidean dagoela amesten duen komunitatea ematen dituen pauso guztiez

jabetzen da, gizatasun- eta senidetasun-leku komunetan elkartzen da, elkarrekin amets egiteko, denon Lurraren zati gisa, neba-arreba hurkoen etxea izatea nahi dugun Lurraren zati gisa, alegia. Bidea konbertsio-gunetzat hartzen du eta, senidetasun horretan oinarrituta, Jainkoaren ametsa lortzeko egiten du lan, guztien ongiari emana. Bizitzaren arlo guztietan eskuzabal inplikatzeko den komunitatea da, zailtasunak aukera bihurtzen dituen, mugak hausten dituzten bideak sortzen dituen; eman edo partekatu baino askoz





gehiago egiten duen komunitatea da, aniztasunetik eraikitzen duena eta pertsona bakoitza osotasunaren beharrezko zatitzat hartzen duena.

Eta, bide horretan, pozak bultzatzen gaitu urrats bakoitza egitera. San Paulok esaten digunez, «Poz zaitezte Jaunarengan beti!» (Filipotarrei 4, 4). San Paulok jarraitzen duenez, poz horri esker besteei harrera adeitsua egiteko gai izaten gara, gure inguruan daudenei denbora eskaintzeko prest egoten gara (cf. Filipotarrei 4, 5).

Aita Frederic Fornos SJK honela zioen elkarrizketa batean: «Ebanjelioaren poza argi eta garbi iristen da bihotzera komunitatea bere buruarengandik irteten denean, Jesukristorengan ardaztutako misioan dagoenean, pobreei laguntzen dienean». Bere buruarengandik aldentzen denean bizi du hori kristau-komunitate batek, eta, bereziki, egoerarik larrienean eta baztertuen dauden pertsonengana jo, eta komunitatearen erdian jartzen dituen. «Halaber, Jaunaren ekintza gure bizitzan edo jendearen bizitzan hautematen dugunean eta besteei euren egoeran laguntzen diegunean ere poz hori iristen da».

## **2021-2022KO KANPAINA**

### **ERDU TE INVITO**

Aurtengo kanpaina instituzionalak, beste batzuetan bezalaxe, txirotasun eta desberdintzako errealitate ezberdinetan erreparatuko du horien inguruan sentsibilizatzeko helburuarekin, deiera eraldatzailea duen itxaropenaren kultura batetik abiatuz eta bide horrekin sinetsita dagoen elkar hartutako komunitate baten alaitasunaren dohainarekin.

Kanpainak lau une izango ditu urtean, itxaropenaren kulturari buruz sentsibilizatzeko, honako hauek oinarri hartuta: gizarte-eraldaketa, eta bidean dagoen komunitate segurua eta elkartu baten pozaren dohaina.

#### **Kanpainaren helburuak**

- Pertsona guztientzako mundu bat —elkarrizketarako eta topaketarako gunea, inor baztertzen ez duena— amesten eta sortzen duten komunitateak sustatzea.
- Bidea amets duten eta itxaropen-zantzuak diren komunitateak eraikitzea.
- Duintasuna eta giza eskubideak balio unibertsal gisa babesten dituzten komunitateak bultzatzea.



## **Kanpainako materialak**

Aurtengo ikasturte pastoraleko kanpainen gogoeta pertsonal eta taldekoa egiteko material bakarra proposatuko dugu, Caritaseko parrokia-komunitate, multzo, talde zein eragileei bizitzari eta ekintzari aurre egiten laguntzeko, errealitateak ipintzen dizkigun premiei hobeto erantzute aldera.

Haur, gazte zein helduentzako materialak aurkezten dira. Horietako bakoitzak gogoeta eta otoitzerako dinamika eta testuak ditu, eta kanpainetako gai bakoitza ukitzen du modu batera edo bestera: komunitate “poliedrikoa”, etxebizitza, enplegua eta boluntariora.

Ikasturte pastoral guztian zehar erabil daitezke, komenigarritzat ikusten den unean eta komunitatean sentsibilizatzeko.

Kanpaina bakoitzari Irekita alearen beste argitalpen bat batuko zaio, gure gogoeta eta otoitzaren osagarri.

Kanpainen sarrera taldeetan ahalik eta modu errazenean landu eta prestatzeko horietako bakoitzaren oinarri laburrak eskaintzen ditugu, jarraian datozenak, taldeko bilkura hasi edo amaitzeko erabil dezakegun otoitz batekin batera.

## **IRAILAREN 26KO KANPAINA**

### **Bat gara. Creamos comunidad**

«Bat gara. Creamos comunidad» elizbarrutiko ikasturtearen hasierako kanpaina da. Kristau-komunitateak bere nortasuna indartzeko aukera bat da, eta Bizkaiko elizan dauden konpromisoa eta aberastasuna agerian jartzeko egiten duen lana nabarmentzeko.

Komunitate poliedrikoa izateko eskatzen zaigu. Frantzisko aita santuak Evangelii gaudium (236) entziklikan aurkezten digun eliza- eta gizarte-eredua poliedrikoa da. Eredu horrek pertsona guztiak hartzen ditu barne, eta harmoniaz lotzen ditu desberdintasunak.

*«Eredua ez da esfera. Esfera ez da bere zatiak baino handiagoa. Esferan, puntu bakoitza zentrotik distantzia berera dago, eta ez dago desberdintasunik puntu batzuen eta besteen artean. Poliedroa da eredua. Poliedroan, alderdi guztiek bat egiten dute, eta bakoitzak bere originaltasunari eusten dio».*



Itxaropenaren ondorioz hurbil, bat eginda eta pozik dagoen komunitate abegitsu baten ikuskera da kanpainaren proposamenaren hazia. Kanpaina honen bidez, Elizak bere misioaren lau dimentsioetan (iragarpena, meza, karitatea eta komunioa) barne hartzen duen aniztasun guztia (kristau-komunitatearen ikuspegi poliedrikoa) integratu eta balioestea da helburua.

## **GABONETAKO KANPAINA - ABENDUAREN 19A**

### **Bizitza duina izateko etxebizitza**

Kanpaina honetan, etxebizitzarako eskubidea azpimarratu nahi dugu. Etxebizitza duin eta egokia izatea ez da pribilegio bat, inolako baldintzaren mende ez dagoen giza eskubide bat baizik. Baina, gure eredu ekonomiko eta sozialean, etxebizitza inbertsio-ondasuntzat hartzen da.

Sozializatzeako funtsezko espazioa da etxebizitza, eta gizarteratzeko lehen mailako faktorea. Etxebizitzarik ezak gizarte-eskubideen erabilera eragozten du, baita pertsonaren errealizazioa ere. Espazio fisiko bat izatea etxe bat izatea baino gehiago da; izan ere, garatzeko aukera ematen du etxebizitzak, eta segurtasuna eta lasaitasuna sentitzeko, eta beste eskubide batzuk (parte-hartzea, osasuna, gizarte-babesa eta abar) gauzatzeko. Hortaz, etxebizitza lortzeak itxaropena eta poza dakarzkie etxerik gabe bizi izan diren familia eta pertsona askori. Funtsezkoa da komunitateak, beste eragile batzuekin batera, pertsona horiei etxebizitza-eskubidea eskatzen eta defendatzen laguntzea, gizarte zuzenago eta bidezkoago baterako bidean argia izateko.

## **APIRILAREN 3KO KANPAINA**

### **Enplegu inklusiboa, LAN DUINA, JUSTIZIAREN MUINA. Sortu beste enplegu bat**

Elizaren Doktrina Sozialak honela definitu du lan duina: «askatasunez aukeratutakoa, langileak —gizonak eta emakumeak— euren komunitatearen garapenarekin eraginkortasunez lotzen dituen; langileak errespetatzen dituen lana, diskriminazio oro saihesten duena; familien premiak asetzea eta seme-alabak eskolatzea —lan egin behar izan gabe— ahalbidetzen duen lana; langileei askatasunez antolatzeke eta euren iritzia emateko aukera emango diena; arlo pertsonal, familiar eta espiritualean norberaren sustraiak behar bezala berreskuratzeko aukera emango duena, eta erretirora iristen diren langileei baldintza duina bermatuko dien lana» (Cáritas in Veritate, 63). Enplegu



inklusiboak hau gehitzen dio definizio horri: lan-jarduera bat egin nahi duten pertsona guztiek —batik bat gizarte-egoera ahulean dudenek— izan behar dute lan egiteko aukera, horrek duintasuna ematen baitie gizarteko gainerako kideen aurrean. Horretarako, mekanismo egokiak gaitu behar dira, pertsonari laguntza pertsonalizatua emateko, elkartasuneko, ekitateko eta gizarte-erantzukizuneko ingurune batean.

Azken batean, elementu horiek guztiek eginkizun bat dute helburu zabalagoak lortzeko, hala nola pobrezia errotik kentzeko, gizarte-inklusioa lortzeko eta norberaren errealizatorako.

Frantzisko aita santuak dioenez, «lanaren balio nagusia pertsonaren ongia da...». Ez du helburu ekonomiko eta irabazi-asmo hutsa, pertsonen duintasuna dakarren helburu bat baizik... «Lanik ezak kalte egiten dio duintasun horri». Frantzisko aita santua, Ternin emandako hitzaldia (2014-03-20)

## **EKAINAREN 19KO KANPAINA**

### **Borondatezko lana, itxaropen-seinalea**

Borondatezko lana itxaropen-seinalea da pertsona guztientzat, mundua hobetu daitekeela erakusten baitu; izan ere, boluntarioek hori egiten dute, mundua hobetu. Egoismoaren, axolagabekeriaren eta erosotasunaren iluntasuna urratzen duen argia da. Itxaropena da misioa bizitzeko pozaren eta maitasunaren iturri.

Caritaseko boluntarioak itxaropen duin eta irmoaren eramaileak dira, eta itxaropen hori pertsona askoren bizitza aldatzeko gai da. Litekeena da Caritasek egiten duena beste erakunde batzuek ere egitea, baina egiteko moduak adierazten du benetan zer garen. Beraz, gure ahalegin- eta elkartasun-eredua inspiratzen duen estiloa originala da. Eredu alaia eta bizia da, eta gure ekintzen egitura eta jarduera osoaren euskarri. Caritasek berezkoa du hori.



## TALDEENTZAKO OTOITZA

Bizi zaitetz nire bihotzean Jauna,  
izan naiteken pertsonarik onen bihurtu naizun.

Munduaren argi garala esan zenduan behin.

Gustuko dot argi izate hori,  
nire inguruko pertsona guztiei  
nire alkartasunaren argiaz argi egitea,  
triste dagozanek jai egin daien,  
gaitzespenaren iluntasunean bizi diranek  
lagunartearen argi eta berotasunaz gozatu daien,  
dana baltz ikusten dabenek dana itxaropenezko kolorez ikusi daien.

Baietz esan gura deusut, Jesus. Bizi zaitetz niregan,  
ez dot-eta gustuko iluntasuna,  
nirekoikeriak bultzatuta neure baitan ixten nauan iluntasuna,  
nire haserrearen eraginez harrapatuta naukan iluntasuna,  
nire kapritxoek bultzatuta hondoratzen nauan iluntasuna,  
mundu honetako hainbeste txarkeriak dakarren iluntasuna.

Baietz esan gura deusut, Jesus,  
zure koloretako argiez, kolore alaiez,  
itxaropenez eta biziz betetako kolorez bete naizun.  
Lagundu eidazu zure adiskidetasunezko argiaren berotasuna

nire barruan sentitzen,  
holan zure adiskidetasunezko argi  
eta berotasun izango naz-eta besteentzat  
nire jardunbide eta jokaeragaz.

Holan, itxaropen-argi izango naz  
egunero nire inguruan dagozanentzat.

